Erakundea/ Entidad: Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea /Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta.
Saila / Departamento: Ingurugiroa / Medio Ambiente.
Espediente mota / Tipo de expediente: Administrazio- kontratazioa /Contratación administrativa.
Kontratu mota / Tipo de contrato: Zerbitzuetakoa / Servicios.
Zerbitzuaren objektua / Objeto del servicio: Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen etxeko hondakinen bilketa elkartua kontratatzeko aholkularitza teknikoaren zerbitzua /Servicio de Asistencia técnica para la contratación agrupada del servicio de recogida de residuos domésticos en la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta
Esleipen-jardunbidea /Procedimiento de adjudicación: Irekia
Espediente Zkia. /N° de Expediente: 2024/02443
Agiri mota / Tipo de documento: Baldintza tekniko partikularren plegua / Pliego de Cláusulas Técnicas Particulares.

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen xedea da laguntza tekniko espezializatuko zerbitzua ematea, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen eremuan etxeko hondakinak biltzeko udal-kontratuak bateratzeko bideragarritasun teknikoa, juridikoa eta ekonomikoa aztertzeko (errefusa, organikoa – 5. edukiontzia –, tamaina handikoak eta inausketak). Mankomunitatea Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko udalerriek osatzen dute.

Azterketa hori modu positiboan amaitzen bada, kontratuak barne hartuko du, halaber, zerbitzu-eredu elkartu bat ezartzeko ibilbide-orri xehatu bat egitea, bai eta hura lizitatzeko beharrezkoak diren baldintza-pleguak idaztea ere.

2. PROIEKTUAREN LURRALDE-IRISMENA

Aipatutako lana Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko udal hauetan egingo litzateke: Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz. Bertan, guztira, 41.151 biztanle daude, eta 6.800

Ha-ko hedadura du. Izaera erdilandatar duten udalak dira, eta gune sakabanatuak dituzte.

3. FASEKA GARATU BEHARREKO ZEREGINAK

1. FASEA: Diagnostikoa

Lanen lehenengo fasearen barruan honako zeregin hauek sartzen dira:

- **Frakzio guztietako datuak biltzea:** Enpresa esleipendunak etxeko hondakinen datu guztiak jasoko ditu, baita frakzio mankomunatuen datuak ere (papera, olioa, hondakin berrerabilgarriak, fluoreszenteak eta pilak) Mankomunitateak frakzio birziklagarrien datuak emango ditu; udal bakoitzak, berriz, errefusarenak, 5. edukiontziarenak, bolumen handikoak eta inausketenak. Bildu beharreko datuen artean, honako hauek egongo dira, gutxienez: udal eta/edo mankomunitate bakoitzak sinatutako kontratuei buruzko datuak, frakzio bakoitzeko bildutako datuak (pisatze-datuak), edukiontziak, eta hurrengo paragrafoan deskribatzen den diagnostikoa egin ahal izateko behar diren datu guztiak.

- Etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua gaur egun nola dagoen kontratatuta aztertzeko **diagnostikoa** zazpi udalerrietan: kontratuen, zerbitzuen eta emaitzen analisia –ezaugarriak, epeak eta indarraldiak, bilketa-sistemak, maiztasunak, ekoizle handiak, frakziokako datuak, baliabide teknikoak eta giza baliabideak, subrogazioak, udal-fiskalitatea eta beste edozein informazio garrantzitsu–. Funtzionalitate eta kostuen ondorioak; teknikoki eta ekonomikoki hobetzeko aukerak; eta beste hainbat gai garrantzitsu.

Fase hau egiteko, **4 bat hilabete** beharko lirateke.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, gehienez ere **hilabeteko epean**, esleipendunak diagnostikoaren lehen fase honetan aurkeztutako dokumentazioa **ikuskatuko du**.

2. FASEA: Bideragarritasun-azterketa

Diagnostikoa amaitu eta Mankomunitateak baliozkotu ondoren, enpresa esleipenduna bideragarritasun-analisiaren 2. fasera igaroko litzateke. Fase horretan honako hauek egingo lirateke: Aztertu beharko da ea teknikoki, juridikoki eta ekonomikoki bideragarria den mankomunatu gabeko frakzioen kontratu guztiak bakar batean elkartzea.

Elkartzea bideragarria izango da baldin eta egungo zerbitzuen kalitatea mantentzen edo hobetzen bada herritarren eta ingurumenaren ikuspegitik, eta kostu ekonomikoa murrizten bada.

Gainera, bilketa mankomunatuko zerbitzuak hobetzeko gomendioak deskribatuko ditu.

Fase hau egiteko, **4 bat hilabete** beharko lirateke.

Fase honetako azterketaren emaitza bideragarria izanez gero, hots, elkartzea bideragarria eta gomendagarria bada, hurrengo fasearekin jarraituko litzateke.

3. FASEA: Elkartutako zerbitzu berriaren diseinua

Fase honetan, elkartutako zerbitzu berriaren diseinua egingo da: ikuspuntu teknikotik, juridikotik eta ekonomikotik. Besteak beste, honako hauek diseinatuko dira:

- bilketa-sistemaren ezaugarriak –udalerrika, frakzioka eta jatorrika (sortzaileka)–,
- giza baliabideak (kopurua eta lanbide-kategoria, subrogazioak, kalte-ordainak, etab.), eta baliabide materialak (behar diren ibilgailuak eta ekipoak, edukiontzien kopurua eta kokapena, gaitasunak, amortizazioak, subrogazioak),
- ibilbideak optimizatzea, maiztasunak, egutegia, ordutegiak,
- bildu beharreko kopuruaren zenbatespena,
- kostu ekonomikoa zenbatestea eta kostu hori frakzioka eta udalerrika banatzea,
- kudeaketa-adierazleak,
- beharrezko inbertsioak,

- subrogazioak, amortizazioak eta egungo kontratuen suntsiarazpena,
- zerbitzu elkartuaren ordenantza orokorra,
- udalek kontratu elkartu berrira sartzeko eta bertatik irteteko baldintzak
- Finantzaketa-iturriak.
- eta beste gai garrantzitsu batzuk.

Gai horiek guztiak zeregin hauetan jasoko dira:

- Elkartzeak izango lukeen **ibilbide-orri** edo administrazio-ibilbide xehatua egitea: kontratu mota, jardun-plana eta ezarpen-kronograma. Denbora aurrera joan ahala, udalen baldintzak inoiz aldatzen badira, enpresa esleipendunari eskatzen zaio, horri begira, kostuen zenbatespena egiteko erabilitako tresna informatikoa eskuratzea Mankomunitateari, egoera berriko kalkuluak egin ahal izateko. Mankomunitateak, beraz, datuak eguneratzeko tresna informatikoa edukiko du, eta, horrela, ibilbide-orria ez da zaharkituta geratuko.

- **Txosten ekonomikoa:** Kontratuaren xede diren lanen funtsezko zati gisa, enpresa esleipendunak ekonomia- eta finantza-txosten oso eta egituratu bat egin beharko du. Txosten horrek, jasangarritasun ekonomikoaren ikuspegitik, arrazoitu beharko du zergatik ezarri beharko litzatekeen Mankomunitatearen eremuan etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua emateko eredu bateratu bat.

  Txosten horrek, gutxienez, honako elementu hauek jaso beharko ditu:

  1. Egungo ereduaren eta eredu elkartuaren arteko kostuen eta diru-sarreren analisi konparatiboa:
     - Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako bakoitzean gaur egun dagoen egoera ekonomikoaren azterketa xehatua –zerbitzuaren kostu unitarioak eta guztizkoak barne–, frakzioka eta bilketa-motaka.

- Zerbitzua elkartuz gero proiektatuko den jokalekuarekin alderatzea, eta, horretarako, kontuan hartzea sinergia operatiboak, eskala-ekonomiak, bitartekoen banaketa eta efizientzia globala.
- Udal-kutxetan espero daitezkeen inpaktu positiboen edo negatiboen balorazio ekonomikoa.

2. Zenbatespena frakzioka eta udalerrika banakatuta
   - Eredu berrian hondakin-frakzio bakoitzari (errefusa, frakzio organikoa, tamaina handikoak, inausketak) lotutako zuzeneko eta zeharkako kostuak kalkulatzea.
   - Gastu-, inbertsio- eta amortizazio-aurreikuspenak udalerrika xehatuta, udalerri bakoitzaren behar espezifikoak kontuan hartuta.

3. Kostuak banatzeko irizpideen proposamena
   - Zerbitzuaren kostuak udalerrien artean ekitatez banatzeko eredu bat edo batzuk formulatzea, adierazle objektiboetan oinarrituta, hala nola biztanleria, etxebizitza-kopurua, hondakinen sorrera, lurralde-dentsitatea, etab.
   - Proposatutako irizpidearen proportzionaltasunaren eta arrazoizkotasunaren justifikazio tekniko eta juridikoa, udalerrien arteko elkartasunaren eta finantza-eraginkortasunaren printzipioen arabera.

4. Zerbitzutik eratorritako diru-sarreren zenbatespena
   - Kudeaketa Sistema Integratuetatik (GIS) edo beste konpentsazio-mekanismo batzuetatik datozen ekarpenen bidez espero den itzulkin ekonomikoaren ebaluazioa.
   - Hondakinak hobeto sailkatzearekin eta berreskuratze-tasak igotzearekin lotutako zeharkako diru-sarreren zenbatespena.

5. Zerbitzu berriarekin koherentea den eredu fiskalaren proposamena

- Udal-ordenantza fiskalak egokitzeko edo harmonizatzeko gomendioak, helburua baita zerga-sistema bidezkoa, gardena eta zerbitzuaren benetako kostuarekin koherentea ezartzea.
- Tarteak, hobariak edo gainkarguak iradokitzea, betiere bat eginik zerbitzu-erabilerarekin, kutsatzen duenak ordaindu beharraren printzipioekin eta birziklatzeko pizgarriekin.

Txostena ikuspegi argiarekin aurkeztu beharko da, taula, grafiko eta simulazioetan oinarrituta, eta ulergarria izan beharko da bai teknikarientzat, bai erabaki politikoak hartzen dituzten organoentzat.

- Zazpi udalerrietako etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua elkarturik kontratatzeko lehiaketaren **agindu teknikoen eta administrazio-baldintzen pleguen proposamena** idaztea, lanaren ondorioen arabera eta ingurumenaren ikuspegitik. Era berean, laguntza eskatuko da lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzen memoriak baloratzeko. (Oharrak: azken zeregin hori ez da egongo baldintza-plegu honetan jasotako faseen mende, baizik eta zerbitzu mankomunatua kontratatzeko balizko lizitazioan ezarritako epeen mende, baldin eta bideragarria bada)

- Udal guztietako udal-arduradunek elkartutako zerbitzu berriaren eraketan duten parte-hartzea **dinamizatzea**.

Hirugarren fase hau egiteko, **4 bat** hilabete beharko lirateke.

4. KRONOGRAMA

Guztira 13 hilabeteko iraupena izango du, 1. fasetik 3. fasera bitartean aurreikusitako egutegiaren arabera egituratuta, Mankomunitateak baliozkotzea barne dela.

FASEA ETA ZEREGINAK	Kontratuaren iraupena (hilabetetan xehatuta)												
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
1. fasea:					*								
2. fasea:													
3. fasea													

* *Mankomunitateak baliozkotu behar du*

Luzapena egotekotan enpresak eskatu beharko du eta mankomunitateak onartu beharko du eta gehienez jota 3 hilabetekoa izango da.

5. ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Enpresa esleipendunak aurreko ataletan zehaztutako dokumentu eta txosten hauek aurkeztu beharko ditu gutxienez:

1. Diagnosiaren txostena
2. Bideragarritasun-azterketari buruzko txostena
3. Elkartutako zerbitzu berriari buruzko txosten teknikoa, ekonomikoa eta juridikoa, bideragarria bada:
4. Ibilbide-orria edo administrazio-ibilbidea
5. Agindu teknikoen pleguak eta administrazio-baldintzen pleguak
6. Barneko partaidetza-saioen aktak eta horietan erabilitako materiala.

6. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Lanak egin ahal izateko, enpresak diziplina anitzeko talde bat izan beharko du, gutxienez profil hauek izango dituena:

- Hondakinen kudeaketa eta plangintza teknikoan aditua den pertsona bat (goi-mailako teknikariaren profila, bilketa mankomunatuko ereduetan esperientzia duena).
- Kontratazio publikoan eta tokiko zuzenbidean espezializatutako legelari bat.

- Ekonomialari bat edo finantza-kudeaketa publikoko teknikari bat, kostuen azterketan eta tokiko fiskalitatean esperientzia duena.

Horretarako, enpresa lizitatzaileak pertsonen titulazioak eta CVa aurkeztuko ditu. Enpresa lizitatzaileak kontuan izan beharko du irizpideen 4. irizpideari buruzko dokumentazioa ezin izango dela 2. gutun-azalean sartu.

Hona hemen eskatutako gutxieneko baliabide materialak:

- Ibilbideak geoerreferentziatzeko eta espazio-analisia egiteko tresnak (GIS edo antzekoa).
- Kostuak kalkulatzeko eta simulatzeko tresna informatikoa (Mankomunitatearen esku geratuko da).

7. ESKAINTZA TEKNIKOAREN EDUKIA

Lizitatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu behar du, jarraian zehazten den moduan:

1. Proposamen tekniko eta metodologikoaren kalitatea
   - Ikuspegi metodologikoaren koherentzia, xehetasuna eta egokitzapena faseka (diagnostikoa, bideragarritasuna, elkartutako zerbitzuaren diseinua).
   - Berrikuntza datuen analisian eta tratamenduan.
   - Egungo ereduak ikuspuntu tekniko eta juridikotik aztertzeko aurreikusitako jardueren deskribapen zehatza.
   - Elkartutako zerbitzu berria diseinatzeko egingo diren jardunen deskribapen xehatua.

2. Lanen antolaketa eta plangintza
   - Kronograma argia: behar izatekotan, eskualde- eta udal-bilerak proposatuko dira
   - Proposatutako epeen errealismoa.
   - Taldearen egitura egokitzea eta zereginak banatzea.

3. Lantaldea

- Profil espezializatuen presentzia eremu tekniko, juridiko eta ekonomikoan.**
- Tokiko edo eskualdeko ingurunearen ezagutza-maila.

4. Udalen parte-hartzea eta dinamizazioa
   - Udaletako arduradunei zerbitzu berriaren diseinuan modu eraginkorrean parte hartzeko eta dinamizatzeko proposamenak.**

Memoriak ezingo ditu A4 neurriko 20 orrialde baino gehiago izan, eranskinak, aurkibidea eta azala aparte utzita. 12 neurriko Arial letra tipoarekin idatzita egon behar du, lerroarte sinplearekin eta 2 zentimetroko marjinekin, goiburuarekin eta orri-oinarekin.

Eskaintza elektronikoa denez, aurpegi bakoitza orrialde bat izango da. Hau da, aurrealdea eta atzealdea 2 orrialde ezberdin izango dira.

Ez da kontuan hartuko luzera hori gainditzen duen folio edo dokumenturik.

** *Enpresa lizitatzaileak kontuan hartu behar du modu objektiboan ebaluatu beharreko irizpideei erreferentzia egiten dien dokumentazioa edo informazioa ezin dela proiektuan eta memoria teknikoetan txertatu; hori eginez gero, garrantziaren arabera, eskaintza kanpoan uztea edo memorian sartu duten informazioa B gutun-azalean ez baloratzea erabakiko da.*

8. ESPARRU JURIDIKOA

Lanak bat egin beharko du honako hauekin:

- Apirilaren 8ko 7/2022 Legea, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- EAEko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana
- Bizkaiko toki-eskumeneko hondakinak prebenitu eta kudeatzeko plan integrala. (PIPGRB-2030),
- Etxeko hondakinei buruz UKZMko udal bakoitzak onartuta duen udal-ordenantzaren eredua.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren

26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, Kontratazio Publikoari buruzkoa, 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- 7-1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
- Aplikatzekoak diren gainerako arauteria eta plangintzak.

9. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Behar den guztietan, koordinazio eta jarraipen-bilerak egitea enpresa esleipendunaren eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen artean.

Dokumentazioa amaitutzat jo baino lehenago, horren zirriborro bat aurkeztu beharko da, aztertu eta behin betiko onartzeko.

Enpresa esleipendunaren solaskideak elebiduna izan beharko du.

Amaierako azterketaren ale bat entregatu beharko da. Nolanahi ere, bildutako eta sortutako dokumentazio osoa (aktak, aurkezpenak, azterlana, ondorio nagusiak, ibilbide-orria eta abar) formatu digitalean aurkeztuko da.

Paperean inprimatzen den dokumentazioaren orriak alde bietatik idatzita entregatu beharko da, %100 birziklatutako papera erabiliz (kontsumo osteko zuntza ≥ %65), eta klororik gabe (TCF).

Dokumentazio osoa euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko da. Horrela bada, Diseinu eta jarduera guztiak (aktak, argitalpenak, txostenak, taulak, grafikoak eta komunikazioak barne) elebidun egin beharko dira, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanez. Hizkuntza biek gramatika aldetik zuzen eta egoki idatzita eta jasota egon beharko dute.

Proiektu honetatik datorren informazioa –zatika edo osorik– erabili eta zabalkundea emateko, enpresa esleipendunak, beren beregi, baimena eskatu beharko dio Mankomunitateari.

10. ENPRESA ESLEIPENDUNAREKIN SINATU BEHARREKO DATU-TRATAMENDURAKO KONTRATUA

Enpresek datu pertsonalak tratatzeko kontratua bete beharko dute, eta hori.BAKPn jasota dago.